

# Agur eta ohore, Miguel Anjel Basurko!

**Patxi Intxaurrendieta**

Koldo Mitxelena Institutuko irakaslea



Pikoketan Institutuko hainbat lankiderekin.

*Biotzean min dut, min etsia,  
negar ixilla darion miña...*

Maiatzaren 18an izan zen. Harenak ere baziren lagun onen artean nengoela, emaztea etorri zitzaidan zorizaiztoko berriarekin: *Miguel Anjel hil da*. Ez nuen malko erdi bat bera ere isuri; etxeko lanak eginak nituen. Aurretik irentsia nuen hain mingarria izango zen berria.

Hari entzundako edo berarekin batera bizi izandako bizipen askok eta askok hartu zuten tokia nire oroimenean.

Gazterik apaiztu eta handik denbora gutxira etorri zen Errenteriarra, eta bertan eraiki zen institutu berrian erlijioa irakasteari ekin zion berehala. 2004an irakaskuntza lanetatik erretiroa hartu zuen arte. Han izan zen ehunka (bizpahiru mila, apika) lezoar, errenteriar, oiartzuar, nonahitar neska-mutil gazteri batzuetan euskara, gehienetan erlijioa irakasten eta beti gazte haiek pertsona onak izateko tresnak eskura jartzearen aldeko lana egiten.

Bitarte zabal horretan zenbat une gozo-atsegin haren ondoan, harekin batera. Institutuan

zernahi gauza egiteko edo egiten laguntzeko prest zegoen irakaslerik bazen, bagenekien zein zen. Euskarak eskolako ate nagusia beti irekia aurkitu ez eta leihoak ate bilakatu behar ziren garai iluntan, han zen Miguel Anjel; arrikutsuak omen ziren liburu onuragarriak ikasleen eskuetan jarri behar zirenean, han zen Miguel Anjel; halako tokitatik zuhaitz nahiz zuhaixkak ekarri behar baziren institutu inguruko porlandian landatu eta ingurunea atseginago bilakatzeko, han zen Miguel Anjel; haiek bizirik iraungo bazuten ongarri bila joan behar bazen, han zen Miguel Anjel; inork bidaide nahi ez zituen ikasle bihurri haiekin ikasketa amaierako bidaiara joan behar bazen, han zen Miguel Anjel; egoera korapilatsu bati aurre egin behar bazitzaion, han zen Miguel Anjel. Eta lagun arteko otordu goxo eta atseginik egin behar zenean ere, han zen Miguel Anjel. Beti opari bera ekarriko zigun: berak Mutrikuko etxean egindako trufak. Munduko kakaorik onenaren bila joango zen Mendarora (Saint-Gerons markakoa behar zuen beti), eta Maria Anjeles arrebaren harridurazko begiradapean, han arituko zen, etxeko sukaldean, txokolatezko dozenaka bolatxoak egiten.

Erreterian aste barruko lanak bukatu eta ostiralean Mutrikura joango zen. Ez zuen saltzeko bere jaioterria. Han, asteburuan, herriko apaizaren eginkizunei eskainiko zien denbora gehiena. Bere eskuez eta lan-arlo guztietako lagun onen laguntzaz zaharberitutako Olatz auzoko elizatzooan, Gipuzkoako zaharrena den Astigarribiako San Andres elizan, Kalbarioko kaperan, Aitona-amonon egoitzan, moja komentuan... tokian tokiko eliztarrekin batera ospatuko zuen meza, eta ondoren, tertuliar lotuko.

Asteburuko tarte handia eskainiko zion hainbeste maite zuen futbolari ere. Horretan ere, gazteen adinari dagozkion gorabeheretan oreka aurkitu nahirik, eta, kirolari dagokionez, benetako dohainak zituztenei aurrera egiten lagunduz. Hori bai, laguntza berezia dohain bereziak zituztenei soilik; horretan, dena esan behar, ez zegoen errukirik. Behar zenean, oso berea zuen "astomanta" esapidea ere erabiltzen bazekien. Han ere, Mutrikuko jokalaria gaztetxoek partidua irabazten bazuten, eta irabazten bazuten soilik, sari moduan, trufak izango zituzten... eta, nola ez, galtzen bazuten ere bai; ezagutzen genuen Migel Anjel.

Hainbeste urte eskolak emateari eskaini ostean, hirurogei urteak gertu zituelarik, gainezka egin zion irakaskuntzak. Indarrrik gabe ikusi zuen bere burua berak beti nahi izan zuen bezala

ahalegin guztiak gazteen zerbitzura jartzeko, eta parrokia baterako bidea hartu zuen. Eibarko Amaña auzoan eman zituen bere bizitzako azken sei urteak.

Eta harako egun hartan jakin genuen guztiz ahulduta zuela bihotza. Behar baino handiagoa zuela ere esan zitzaigun. Ez genuen inongo txostenik behar hori jakiteko. Ondo ezagutzen genuenok aspalditik genekien Migel Anjelek gorputz hartan kabitu ezinik zebilen bihotza zuela. Nola hartu lekua bertan gizon on hark maite zituen lagun guztiek?

Eta azkenean, emanaren emanaz higaturiko bihotzak, loreena omen den garai hartan, planto egin zion betiko.

Bereak egingo zituzkeela badakidalako, Joan Mari Irigoien altzatar idazleak oparitu zizkigun hitz eder hauek eskaini nahi dizkiot hemendik:

Tristura badago,  
baina poza itxaro  
dudalako...;  
zuzengabekeria badago,  
baina justizia itxaro  
dudalako...;  
gorrotoa badago  
baina maitasuna itxaro  
dudalako...;  
heriotza badago,  
baina bizitza itxaro  
dudalako...,  
maite dut bizitza!



2004ko agur-bazkarian lankideek eta ikasleek egin zioten omenaldia.



Institutuko lankide eta lankide ohiek 2004an eskaini zioten agur-bazkaria.